

# GABONETAKO KONTZERTUARI BURUZKO PRENTSAURREKOA

*Franz Joseoh Haydni eskainia oso-osorik, kontzertu honetan bere lanik esanguratsuena interpretatuko da: “Kreazioa”. Izan ere, 2009an musikagile austriarra hil zeneko bigarren mendeurrena ospatzen dugu*

**Bilbon, 2009ko abenduaren 15ean**

**Eguna: abenduak 16**

**Ordua: 11:30**

**Lekua: BOSen Entseguetarako Aretoa (Euskalduna Jauregia) (sarrera, BOSen bulegoetatik. Zelaiguneko ezkerreko aldea)**

Bihar, abenduak 16 (asteazkena), 11:30ean, BOSen entsaguetarako aretoan (Euskalduna Jauregia), BOSeK Gabonetako Kontzertua aurkeztuko du Prentsaurrekoan. Kontzertua J. Haydni eskainita egongo da, bere heriotzaren bigarren mendeurrenako urtean.

Prentsaurrekoan honakoak izango dira:

- **Ibon Aranbarri**, BOSeko zuzendari nagusia
- **Antoni Ros Marbá**, zuzendaria
- **Raquel Lojendio**, sopranoa
- **Agustín Prunell-Friend**, tenorra
- **Josep Miquel Ramón**, baxua

Franz Joseph Haydn (1732ko martxoaren 31 –1809ko maiatzaren 31) Austrian jaio zen, eta aldi klasizistako ordezkari gorenetakoa da. Gainera, askorentzat, “Sinfoniaren aita” eta “Hari koartetoaren aita” da, bi genero horiei egindako ekarpen garrantzitsuei esker. Bizi zela ospeaz eta bere lanarekiko aintzatespen publikoaz gozatzeko zortea izan zuen musikagileetako bat izan zen, izan ere, hil zenean, Europako musikagilerik ospetsuenetakoa zen.

Bere bizitzako azken urteetan, “Kreazioa” oratorioa sortu zuen, bere maisulana. Bertan, Kreazioaz zuen ikuspegia erakusten du, bi inspirazio-iturritan oinarrituta: Hasiera eta John Miltonen “Paradisu galdua” poema. 1796 eta 1798. urteen artean lan handia egin zuen konposizio erraldoi honetan. Dena dela, lanaren inspirazioa 1791n Ingalaterrara egindako bidaia batean izan zuen; izan ere, bertan, Haendelen zenbait lan entzun zituen, besteak beste, “Mesias”. Oso sinestuna zen, eta hauxe zioen: “Sekula ez naiz izan Kreazioa konposatu nuenean bezain jainkozalea. Egunero belauniko jartzen naiz eta otoitz egiten dut Jaungoikoaren aurrean, lanean indarra eman diezadan”.

**PRENTSAURREKOAREN ONDOREN, ZEINA BOSeN ENTSEGUAREN ATSEDENALDIAN  
EGINGO DEN, AIPATUTAKO ENTSEGUKO BIGARREN ZATIKO LEHENENGO MINUTUETAKO  
IRUDIAK HARTU AHAL IZANGO DIRA**